

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Martina Gallastegi Mendia

*Durango,
Bizkaia
(1921-2019)*

Aurkibidea



Biografia



1921ean jaio zen [Zalabarra](#) "Salabarri" auzoko [Zabale](#) baserrian (gaur egun Lupetza jatetxea dagoen lekuan). Ama bertakoa zuen eta aita Izurtzako Bekotorrekoa. 8 neba-arrebatatik bigarrena da. Umetan eliza osteko eskola dominikaletan, Kalebarriko eskolan eta San Vicente de Paulen ibili zen. Gerra garaian pare bat hilabetez herritik kanpora joan behar izan zuten: Orozketako Etxetxuan, Mungian, Gatican, eta Berangon egon ziren, besteak beste. Gazterik hasi zen baserriko lanetan, ortuariak eta esnea etxerik etxe saltzen aritutakoa da. 21-22 urtegar Mendizabalenera joan zen neskame lanetan, eta bi urte eta erdiz bertan egon ostean, Arriandiko Txorrondoko Juan Gallastegigaz ezkondu zen.

Zintak

DUR-020

- **Proiektua:** Durangoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-03-04
- **Iraupena:** 56 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. 14 urte arte eskolan

- **Erref:** DUR-020/002
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:02:25. **Bukatu:** 00:03:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>14 urte arte ibili zen eskolan. Eskola Dominikala, Kalebarrikoa eta San Vicente de Paulen mojen eskoletatik pasatu zen.</p>

2. Santa Anako balkoitik zezenak ikusten

- **Erref:** DUR-020/003
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:03:31. **Bukatu:** 00:06:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Jai-giroa » Zezenak

Laburpena:

Santa Anako pisu batera ezkondu zen, eta bertan bizi izan zen 50 urtetan. Bere semeak umetan balkoitik zezenak ikusten beldurtu egiten ziren. Emakumeek ez zuten zezenetan korritzen. Kaleetan babes gutxi egoten zen, gaur egungoarekin konparatuz.

3. Umetatik laian jarduna

- **Erref:** DUR-020/004
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:06:25. **Bukatu:** 00:08:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Eskolara gustura joaten zen. Eskola denak ez ziren publikoak. Aita arotza zuen. Baserriko lanetan umetatik jardun zuen Martinak. Etxe ondoko ortutxoa laiatu egiten zen. Hamabi urterekin ekin zion Martinak laian. Laiaren ondoren aitzurra eta mokil haustekina erabiltzen ziren.

4. Sutarako egurra eta garoa etxeko mendietatik

- **Erref:** DUR-020/005
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:08:48. **Bukatu:** 00:10:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Ganaduen azpitarako garoa basotik ekartzen zuten. San Roke errekatik gorako basoak ziren etxekoak. Sutarako egurra eta garoa ekartzen zituzten. Etxebizitza biren artean egiten zuten egurra. Loteak nola prestatu eta zozketatzen zituzten azaltzen du.

5. Litro, zelemín eta kuartak

- **Erref:** DUR-020/006
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:12:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroñera

Laburpena:

Aitak arotz lanak etxetik kanpo egiten zituen. Etxean esne behi bi zituzten. Umetan herrira joaten zen esnea saltzera. Plazara barazkiak eramaten zituzten. Esnea litroka saltzen zuten, eta babarruna zelemínka. Pisatzeko erromatar balantza erabiltzen zuten.

6. Zorroa bizkarrean hartuta errotara, 14 urterekin

- **Erref:** DUR-020/007
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:12:49. **Bukatu:** 00:15:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

<p>22-24 arto kiloko zorroa bizkarrean eramaten zuen Arandiako errotara, 14 urte zituela. Irina oremahaian garbitu eta taloa edo morokila egingo zuten. Ama gibleko gaitzarekin egon zenean ez zuen txerrikirik jaten. Amona, andre gogorra eta langilea, bihotzeko batetik hil zenean pena handia hartu zuten.</p>

7. Etxeko artoa etxean gastatzen zen

- **Erref:** DUR-020/008
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:15:32. **Bukatu:** 00:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Etxean birrindutako artoa ematen zitzaion ganaduari. Errotan ahizpa bi ziren errotariak. Ogia ere egiten zuten.</p>

8. Bonbardaketatik Orozketara ihesi

- **Erref:** DUR-020/010
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:18:25. **Bukatu:** 00:20:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Bonbardaketa hasi zenean, Orozketako Etxetxu baserrira joan ziren, behiak gurdira erantsita. Hiru hilabete egin zituzten etxetik kanpo; eta, lagun bati esker, etxea ondo zainduta egon zen.

9. Orozketatik Mungiara eta Gatikara

- **Erref:** DUR-020/012
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:22:03. **Bukatu:** 00:24:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Orozketatik Bernagoitira oinez mendirik mendi joan ziren; bidean, kobazuloetan ezkutatzeko ziren, abioiek ikus ez zituzten. Handik, Eubara jaitsi eta Mungiaraino joan ziren trenetik. Arrastoa jarraitzen, Gatican aurkitu zituzten gurdia eta familiako beste kideak.

10. Etxera bueltatu eta den-dena eurek utzi zuten bezala zegoen

- **Erref:** DUR-020/013
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:24:47. **Bukatu:** 00:27:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerran, Gatikatik Berangora joan ziren, eta handik hilabete pare batera Durangora itzuli ziren. Etxe aurrean belarra zen nagusi, baina etxea ondo zegoen eta eurak ere bai.

11. Bueltarako bidean, zubiak apurtuta

- **Erref:** DUR-020/014
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:27:50. **Bukatu:** 00:29:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Berangon zeudela, aita gorriek gerrara eramango zuten beldurra zuten. Durangora bueltan, zubiak apurtuta zeuden eta erreketen aurretik pasatu behar izan zuten.

12. Durango suntsituta aurkitu zuten

- **Erref:** DUR-020/015
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:29:52. **Bukatu:** 00:31:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

<p>Durangoko etxe asko, Andra Mariko eliza eta Santa Susanako komentua apurtuta zeuden. Komentuan, bonbek moja asko hil zituzten, eta motorrez ihesi zihoan jendea abioietatik metrailatu zuten. Bideak beltzak ziren, kamioiak ibiltzeko modukoak.</p>

13. Hogei urterekin Mendizabalarenera neskame

- **Erref:** DUR-020/017
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:32:12. **Bukatu:** 00:35:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Soroetako belarrak ebaki, lurra landu eta arto-babarruna erein zuten. Patata jorratu gabe zegoen. Aita kanpoan bere lanetan, eta Martina etxean umezain. Umeetako bik kukutxeztula harrapatu zuten. Hogei urterekin Mendizabalen etxera joan zen neskame. Etxe hori nolakoa zen azaltzen du.

14. Mendizabaleneko zerbitzariak

- **Erref:** DUR-020/018
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:35:23. **Bukatu:** 00:36:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Etxe eta lorategi dotoreak zituzten Mendizabalenean. Zerbitzu eta txoferren artean bost langile ziren. Berogailua egurra eta ikatzarekin zebilen.

15. Lanean irabazitakoarekin ezkontzarako arreea

- **Erref:** DUR-020/020
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:39:11. **Bukatu:** 00:42:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Lanean ondo tratatzen zuten. Jan eta lo bertan egiten zuen. Hamabostean behin irteten zen nobioa ikusteko. Neskame egon zen denboran irabazitakoekin ezkontzarako arrea prestatu zuen. Tela erosi eta arratsaldetan josten zuen. Mojen eskolan ikasi zuen josten.</p>

16. Ezkontza xumea eta ezkon-bidaia Donostiara

- **Erref:** DUR-020/022
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:43:30. **Bukatu:** 00:45:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Ezkondu zenean, aita logela bat oparitu zion, eta berak arrea prestatu zuen. Ezkontzara senide zuzenak besterik ez ziren joan. Gero, Donostiara joan ziren astebeterako. Lana ezkontzeko utzi zuenean diru sari bat eman zioten.</p>

17. Euskarazko dotrina amak irakatsitakoa

- **Erref:** DUR-020/025
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:47:46. **Bukatu:** 00:50:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Dotrina Andra Mari elizan ikasi zuen. Neska-mutilak elkarrekin eta erdaraz. Euskaraz dakien dotrina amak irakatsitakoa da. Bazkalarrean errezatzen zuten, baina ohera joan aurretikoak edo arrosariorik ez dituz gogoan. Aita igandero 12etako mezara joaten zen.</p>

18. Mezak ulertezinak ziren

- **Erref:** DUR-020/026
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:50:34. **Bukatu:** 00:53:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Meza asko latinez ematen ziren orduan. Santa Anako sermoiak ospetsuak omen ziren. Mezara joateko zertxobait dotoreago janzten ziren.

19. Udararen komediantek Ezkurdin

- **Erref:** DUR-020/027

- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:53:24. **Bukatu:** 00:56:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Udaran Ezkurdira komediantek etortzen ziren. Amak etxeko gazteak Komediantek ikustera eramaten zituen. Ezkurdi ostean barrakak ere egoten ziren. Bolatokirik ez du gogoan Martinak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com